

DIGITALIZAZIOAREN ETA HERRITARRENGANAKO LAGUNTZAREN ZUZENDARI NAGUSIA

César Prol Bosque

Barakaldon jaio zen, 1976an

Prestakuntza akademikoa:

Deustuko Unibertsitatean lizentziatutako ingeniari informatikoa da.

Deustuko Unibertsitatearen Soluciones Software para Internet espezializazio-masterrean diplomaduna da.

Executive MBA, ESEUNE Business School eskolan.

Lan-esperientzia:

ISI SA (Deustuko IT taldea) enpresan hasi zuen ibilbide profesionala, web-teknologiako proiektuetako programatzaile eta analista tekniko gisa (2001-2003). PROL C.Tren bazkide sortzailea (2003-2006) izan zen, eta sektore teknologikoko beste enpresa batzuekin lankidetzan aritu da, arkitektura teknologikoko lanetan (ENTEL SA, 2005-2006) eta Produktuen Garapen Teknologikorako Proiektuen buru. Hurrengo urteetan (2006-2009), Oesia enpresan analisi teknikoko eta proiektu-zuzendaritzako lanetan parte hartu zuen hainbat sektoretan eta bezerorekin. Hurrengo bi urteetan, Steria Ibérica (SA) multinazionalerako kide izan zen, sektore pribatu eta publikoaren arloko proiektuen buru (2010-2012).

2012. urtearen amaieratik, Grupo Versia taldeko kide da, eta hainbat zuzendaritza-lan egin ditu: lehenik, Arkitektura Teknikoaren Arloko Zuzendaritzan (2012-2013); ondoren, Proiektuen Arloan (2014) eta Sycaton Global Services enpresako Berrikuntza eta Produktuaren Arloko Zuzendaritzan (2014-2017). 2018an, Versia Tecnologías Emergentes enpresako operazio-zuzendaria izan zen, eta 2019an, berriz, enpresa horretako zuzendaria.

2019ko irailean, Bizkaiko Foru Aldundian sartu zen, Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabineteko aholkulari orokor gisa, eta aholkularitza eman zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren estrategia digitala definitu eta hedatzeko.

2021etik, Bizkaiko Foru Aldundiko Digitalizazioaren eta Herritarrenganako Laguntzaren Zuzendari Nagusia da.

Hizkuntzak:

Euskara: Maila ertaina, ahoz eta idatziz.

Ingelesa: Maila ertaina, ahoz eta idatziz.